

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoako bitzta guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Tele-ikasteko baldintzak eta ikasteko lehentasunak

81. dokumentua

2021eko azaroa



AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Tele-ikasteko ezagutza eta inguruneko baldintzak	4
2.1. Tele-ikasteko pertsonen ezagutza eta inguruneko baldintzak	4
2.2. Egindako balorazioa eta pertsonen ezaugarriak	6
3. Zer ikasketa-eredu gustatzen zaizkien pertsoneri.....	8
3.1. Lehentasunak ikasteko modalitateetan	8
3.2. Ikasketa-modalitateen lehentasunak eta pertsonen ezaugarriak	9
4. Ondorioak	11
4.1. Ondorioak: gakoak eta gogoeta	11

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Dokumentu honen helburua ikaskuntzarekin lotuta eta, modu zehatzagoan esanda, ikaskuntza birtualeko modalitatearekin lotuta lortutako emaitzen panela¹ aurkeztea da. Tele-ikaskuntzako jardueren errealitatea lantzeko (ikaskuntza birtuala edo urrunekoa), hiru informazio-bloke hartu dira kontuan:

- Proposatutako ikaskuntza-modalitateekin (presentziala bakarrik, birtuala bakarrik eta bi modalitateetako jardueren konbinazioa) lotuta pertsonen aurreko ibilbidea eta haien azkenaldiko esperientzia ezagutzea.
- Ikaskuntza modalitate birtualean egiteko haien ingurunean eskuragarri dauden baldintzak eta pertsonen gaitasunak ezagutzea.
- Egindako ikaskuntza birtuala eta lortutako asebetetze maila, eta ikaskuntza birtualarekin lotutako ikasteko asmoak eta aurreikuspenak baloratzea.

Lortutako emaitzak parte-hartzaileen karakterizazioaren arabera bereizi dira (adina, generoa, ikasketa maila edo profil profesionala).

Emaitzen panel honek Gipuzkoako helduek ikaskuntza birtualarekin lotutako jardueretan izandako eta gaur egun duten esperientzia erakusten du denbora errealean. Gainera, Covid-19aren pandemiak ezarritako murrizketak gainditu ostean epe ertainera begira tresna honek eskaintzen dituen aukerak jasotzen ditu. Azkenik, adierazi behar da dokumentu honetako emaitzen oinarria pertsonen tele-ikasteko dituzten ezagutzak (egungoak) eta proposatutako ikaskuntza-modalitateen gaineko lehentasunak baloratzea dela.

¹ 2021eko otsailean egindako kontsulta.

2. Tele-ikasteko ezagutza eta inguruneko baldintzak

2.1. Tele-ikasteko pertsonen ezagutza eta inguruneko baldintzak

Hamar gipuzkoar heldutik (ikasleak ez diren 25-74 urtekoak) bizpahiruk tele-ikasketa jardueraren bat egina zuten

Prestakuntza-jarduera birtualizat (tele-ikaskuntza) hartzen dira edukien deskarga eta streaminga eta/edo ikastaroetara zuzeneko sarbidea (edozein aplikazio teknologikoren bidez). Kontsultak ikaskuntza-modu horiek pandemia aurretik zenbatero erabiltzen zituzten jasotzen du (inoiz ez aukeratik hasi eta dezentetan edo askotan aukerara arte).

1. taula. Tele-ikasten ari diren pertsonen ibilbidea (pandemia aurretik)

25 eta 74 urte arteko pertsonak

Pertsonen %	Inoiz edo ia inoiz ez	Noizbait	Dezentetan edo askotan
Egindako tele-ikaskuntzako modalitatea			
Eduki eta ikastaroen deskarga	61,0	33,9	5,1
Streaminga, konexioko app bidez	74,5	21,4	4,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Emaitzek hau erakusten dute: Gipuzkoako heldu gehienek aipatu zuten ez zutela (inoiz edo ia inoiz) edukien deskargarik egin (% 61,0), edo streaming bidez edo urruneko beste konexio-moduren batean ikastaroetan (% 74,5) parte hartu. Bestalde, ikaskuntza birtuala erabili duten pertsona gehienek (deskarga edo konexioa) aipatu dute salbuespenez izan zela (batzuetan, pertsonen % 33,9k eta % 21,4k hurrenez

hurren). Gutxiengoa da erabilera esanguratsua egiten dutela aipatu dutenen taldea (dezentetan edo askotan, pertsonen % 5,1ek eta % 4,1ek).

Pertsonen ia erdia ez litzateke gustura egongo bere tele-ikasteko ezagutzarekin eta/edo inguruneko baldintzekin

Baina, zein da haien gogobetetze maila tele-ikasteko ezagutzei eta inguruneko baldintzei dagokienez? Emaitzek hau erakusten dute:

- Ia bi pertsonatik bat ez dago batere gustura. Proposatutako hiru aukeretan –ikasteko plataformak ezagutzea, baliabide teknikoak izatea eta/edo toki egoki bat izatea–, ia pertsonen erdiak adierazi du ez dagoela batere edo oso gustura (% 49,5, % 44,9 eta % 46,6, hurrenez hurren).
- Bestalde, ia hamar pertsonatik lauk adierazi du erdi edo nahiko gustura dagoela (% 46,1, % 49,1 eta % 47,4, hurrenez hurren). Baina, banaketa desberdina da hiru aukeretako bakoitzean. Horri dagokionez, emaitza onenak (nahiko gustura daudenen proportziorik handiena) baliabide teknikoei (% 32,3) eta inguruneko baldintzei (% 31,4) dagokienak dira.

Gainera, Gipuzkoako hamar heldutatik batek baino gutxiagok esan du oso gustura dagoela tele-ikasteko jarduerak egiteko bere ezagutza eta inguruneko baldintzekin (pandemia aurretik).

2. taula. Tele-ikasteko ezagutza eta inguruneko baldintzak (pandemia aurretik)

25 eta 74 urte arteko pertsonak

	Batere edo ez oso gustura	Erdi gustura	Nahiko gustura	Oso gustura
Euskarriak/webguneak ezagutzea, nola konektatu, informazioa deskargatu...	49,5	20,1	26,0	4,4
Baliabide teknikoak (konexioa, tresna-ordenagailua...)	44,9	16,8	32,3	6,1
Eremu fisikoa (isolamendua, zaratarik eza...)	46,6	16,0	31,4	6,0


Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

2.2. Egindako balorazioa eta pertsonen ezaugarriak

Tele-ikasteko hiru alderdien balorazio orokorra 5 puntutik beherakoa da

Tele-ikasteko ezagutza eta ingurune baldintzen arabera egindako balorazio orokorraren indizeak (0tik 10era) ikasteko plataforma birtualen ezagutzaren balorazio apur bat okerragoa islatzen du (3,7 puntu) beste bi alderdi fisikoekin alderatuta (baliabideak edo ingurunea). Gainera, ez da alderik ageri generoaren arabera, baina puntuazioak hobexekoak dira gizonen artean.

1. grafikoa. Tele-ikasteko ezagutzari eta ingurune baldintzei buruzko balorazio orokorraren indizea (0-10). Guztira eta generoa




Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Tele-ikasteko alderdien batezbesteko balorazioak okerrera egiten du adinarekin

Tele-ikasteko hiru alderdien balorazioak okerrera egiten du pertsonen adinarekin. Baloraziorik onena 25 eta 44 urte arteko taldeak du; aldiz, 45 eta 54 urte bitarteko taldearen balorazioa negatiboa da argi eta garbi, nahiz eta kolektibo horrek, bizi-ibilbidea eta/edo ibilbide profesionala dela eta, ikasketa birtualeko jarduera kopurua handian parte hartu behar zukeen.

2. grafikoa. Balorazio orokorraren indizea (0-10) eta adin-taldeak




Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Balorazioak hobera egiten du pertsonen ikasketa-mailarekin eta lan-merkatuari lotuta dauden pertsonen artean

Tele-ikasteko hiru alderdien balorazioak hobera egiten du pertsonen ikasketa-mailarekin. Horrela, nabarmendu behar da hirugarren maila eskuratu dutenen artean bakarrik gerturaten dela 5 puntura, eta bigarren eta hirugarren maila duten pertsonen arteko aldea txikiagoa dela lehen mailako ikasketa-maila lortu duen taldearekin alderatuta.


3. grafikoa. Balorazio orokorraren indizea (0-10) eta ikasketa-maila



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Azkenik, esan behar da alderdi horietako bakoitzaren balorazioa hobea dela lan-merkatuari lotuta dauden pertsonen artean (lanean edo langabezian daudenak) beste egoera batzuetan daudenekin alderatuta (gehienbat, erretiratuak).

4. grafikoa. Balorazio orokorraren indizea (0-10) eta lan-egoera



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

3. Zer ikasketa-eredu gustatzen zaizkien pertsoneri

3.1. Lehenetasunak ikasteko modalitateetan

Nahiago dira aurrez aurreko jarduerak; ez dago alderik generoaren arabera

Ikasteko formatu birtualen presentzia handitu den arren, Gipuzkoako pertsona helduei galdetu zaie nola ikastea gustatuko litzaiekeen, hau da, zer ikasketa-eredu aukeratuko luketen. Lortutako emaitzek erakusten dute pertsonen bi herenek nahiago dutela formatu presentziala modalitate birtualaren aldean.

Hala ere, nabarmendu behar da pertsonen heren batentzat modalitate birtuala garrantzitsua dela, berdin zaielako modalitate hori edo ikasketa-presentziala (% 8,4), bi formatuak konbinatuta (% 17,1) edo ikasteko modu horren bidez soilik lantzea formakuntza (% 8,5).

Emaitza horiek honakoa erakusten dute: nahiz eta biztanleria helduaren zati handi batek batez ere ikasteko modu presentziala izan, pertsonen bitzita pertsonalean eta profesionalean konektatzeko gailu mota guztiak zabaltzeak eta erabiltzeak erraztu egin du teknologia erabiltzea, baita ikasteko ere.

3. taula. Nola ikastea gustatuko litzaiekeen; orokorra eta generoaren arabera

25 eta 74 urte arteko pertsonak

	Guztira	Gizona	Emakumea
Bi modalitateak, berdin dio zein	8,4	7,3	9,5
Bi modalitateak konbinatuta	17,1	15,5	18,8
Presentziala birtuala baino nahiago	66,0	69,3	62,8
Birtuala presentziala baino nahiago	8,5	8,0	9,0

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

3.2. Ikasketa-modalitateen lehentasunak eta pertsonen ezaugarriak

Ondorengo tauletan, adin-taldearen, lortutako formazioaren, eta lan-merkatuaren arabera emaitzak datoz, ikasketa-modalitateen gaineko lehentasunei dagokienez. Laburbilduz:

- Kasu guztietan, formazio presentziala modalitate birtuala baino nahiago dute gehienek.
- Baina, formazio birtuala nahiago duen pertsona multzoa (berdin diolako bata edo bestea, bi modalitateak konbinatuta edo nahiago duelako modalitate birtuala) handiagoa da 25 urtetik 44 urtera artekoetan (% 41,8), hirugarren-mailako ikasketak dituzten pertsonetan (% 40,2) edo lan-merkatuarekin lotura duten pertsona multzoan (% 37).
- Eta, ikaskuntza-birtuala barne hartzen duten hiru aukera horien barruan (berdin dio, konbinatua edo birtuala presentzialaren aurrean), nahiago dute bi modalitateak konbinatzen dituen formatua.

4. taula. Nola ikastea gustatuko litzaiekeen, adin-taldearen arabera

25 eta 74 urte arteko pertsonak

	44 urtera artekoak	45 eta 54 urte artean	55 eta 74 urte artean
Bi modalitateak, berdin dio zein	10,5	6,5	7,2
Bi modalitateak konbinatuta	20,5	20,6	10,9
Presentziala birtuala baino nahiago	58,2	65,3	74,8
Birtuala presentziala baino nahiago	10,8	7,6	7,2

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

5. taula. Nola ikastea gustatuko litzaiekeen, ikasketa-mailaren arabera

25 eta 74 urte arteko pertsonak

	Lehen maila	Bigarren maila	Hirugarren maila
Bi modalitateak, berdin dio zein	7,0	9,9	7,9
Bi modalitateak konbinatuta	11,1	11,4	24,4
Presentziala birtuala baino nahiago	72,5	70,0	59,8
Birtuala presentziala baino nahiago	9,4	8,8	7,9

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

6. taula. Nola ikastea gustatuko litzaiekeen, lan-jardueraren arabera

25 eta 74 urte arteko pertsonak

	Lanean	Langabezian	Beste egoera batzuk
Bi modalitateak, berdin dio zein	8,5	9,9	7,4
Bi modalitateak konbinatuta	19,9	17,3	10,6
Presentziala birtuala baino nahiago	63,0	63,0	74,1
Birtuala presentziala baino nahiago	8,5	9,9	7,9

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia



4. Ondorioak

4.1. Ondorioak: gakoak eta gogoeta

Dokumentu honen helburua Gipuzkoako pertsona helduen (25 eta 74 urte artean) balorazioa ezagutzea da, ikaskuntza birtualerako haien egoerari (ezagutza eta baliabide fisikoen eta inguruneko baldintzak) eta ikasteko modalitateen lehentasunei dagokienez. Emaitez hau erakusten dute:

- la bi pertsonatik bat ez dago gustura ikasketa birtualerako bere ezagutza eta baldintzekin. Izatez, eta 0 eta 10 bitarteko indize batean, hiru alderdiek 5 baino puntuazio baxuagoa lortu dute. Hori bai, indize horrek hobera egiten du ikasketa-mailarekin eta lan-merkatuko loturarekin. Bestalde, argi eta garbi okerrera egiten du balorazioak adinarekin, eta antzekoa da emakume eta gizonen artean.
- Hein batean, ikaskuntza-modalitate bat hautatzea ikaskuntza-birtualari aurre egiteko gaitasunaren inguruko balorazioaren ifrentzua da: pertsonen bi herenek ikaskuntza presentzialaren aldeko hautua egin du, heren batek, aldiz, ikaskuntza birtualaren aldekoa; berdin diolako bata edo bestea, konbinatuta, edo presentziala baino nahiago duelako.

Logikoki, proportzio hori handiagoa da gazteen artean (25 eta 44 urte artean), kualifikazio maila altuagoa dutenen artean (hirugarren maila) eta, neurri txikiagoan, lanarekin lotuta.

Emaitez erakusten dute pertsonak baldintzak hobetu behar dituztela ikaskuntza birtualerako, batez ere, ikaskuntza-eskaintzaren ezagutzari dagokionez. Balorazioak azaltzen du (oro har, ez daudela gustura adierazten dute) lehentasuna duela ikaskuntza-presentzialak ikaskuntza birtuala erabiltzen duten bertsioen aldean. Azkenik, adin-arrakala eta ikasketa-maila oso esanguratsuak direla nabarmendu behar da.



Izenburua:	Tele-ikasteko baldintzak eta ikasteko lehentasunak 81. dokumentua, 2021eko azaroa
Koordinazioa eta gainbegiraketa:	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia
Egilea:	IKEI, research & consultancy SA
Landa-lana:	Datakey, S.A.